

# **ADITZAREN KOMUNZTADURAZ OHAR BATZUK**

ADOLFO AREJITA

Sarri esan ohi da euskera hizkuntza mueta berezia dala munduko hizkuntza ezagunen artean, eta berariz, mendebalde honetako hizkuntza landuen barruan; eta esan izan da, era berean, bere ingurukoakaz baino urrunago dagozanakaz kidetuago dagoala egituraren aldetik.

Edozein gramatikari arrotzek ezaugarri berezietarikotzat nabarmenduko leukean arloa, aditzarena da, zalantza barik. Euskera egitura sintetiko-dun hizkuntza dala esaten danean, batez ere izenen kasu-hizkiei eta aditzaren egiturari gagokioz.

Izan ere, euskal aditz jokatuaren bidez, inguru-hizkuntzetakoaren bidez baino esaldi atalen barri gehiago emoten da, aditz erroaren inguruan txertatu oi diran aurrizki, artizki edo atzizkien bidez. Euskal aditzak, esaldiko osagai gehiagogaz daukaz loturak, frantses, ingeles edo gaztelania hizkuntzeta-koek daukien baino.

Gure oraingo lantxo honetan puntu soiltxo hau ikutu gura genduke: aditzak perpausako izen sintagmakaz daukan komunztadura: zeintzuk izen sintagmak daukien aditzagazko zerikusi agirikorik, eta zetariko hartuemonak daukien.

## **Izen sintagmekiko komunztadura**

Aditzetan sail bi egiten ditugularik, iragankorrek eta iragangaitzak (hau da, nork-sintagma onartzen dabenak, eta nork-sintagmarik onartzen ez dabenak), izen sintagmekiko lau egitura nagusi dira bidezko aditzaren barruan, gauza jakina denez:

NOR  
NOR-NORI  
NOR-NORK edo NORK-NOR (ZER)  
ZER (nor)-NORI-NORK (1)

---

(1) Ez ditugu hemen aitatu aditz bereziek eskatzen dabezan kasuak: atributozko egitura, *urten*, *igon* eta beste aditz batzuek eskaturikoak, eta abar.

Aditzean gerta daitekezan lau egitura honeek dirala eta, ondorio bat daukagu argia: hiru sintagma dirala komunztadura onartu eta eskatzen dabena: *nor*, *nork*, eta *nori*. Hau da, sintagma horreetariko bat azaldu ezkerrean, aditzean (nominalizaturik ez baldin bada) sintagma horri dagokion hizki bat agertu beharrekoa da. Adibidez:

- (1) *Gu* etxera *G-oa-Z* /nor:gu/
- (2) *Peru* eta *ni zuei* etxera *G-oa-TZUE-Z* /nor-nori: gu-zuei/.
- (3) *Zuok ni nora* *N-aroa-ZUE* /nor-nork:ni-zuek/
- (4) *Zergaitik* *D-aroa-DA-ZUE-Z* *sagarrik zuek niri?*  
/zer-nori-norksagarrik-niri-zuek/.

Ezagunak jakuz izen sintagma honeen azalpena aditzean emoteko erabilten diran aurizki edo atzizkiak:

*NOR sintagmarako*

Oraindirako: N-, H-, D-, G-, Z-, Z-, D-

Nor hori plurala bada, pluraltasun hizki bat egoten da:

-Z, -IT- edo beste antzekoren bat. Era berean, *zuek* pertsonako adizkiak *-e* /*-te* atzizkia hartzen dau zu pertsonatik bereizteko.

*NORK sintagmarako*

Oraindirako: -T/Da, -K/-N, Ø, -GU, -ZU, -ZUE, -E/-TE

Iraganetan (nork-zer): N-, H-, (Z-), G-, Z-, Z-, (Z-)

*NORI sintagmarako*. Barianteak diralarik, hona bi:

(Izan): -T, -K/-N, -KO, -KU, -TZU, -TZUE, -KE (bizk)

(Edun): -T/Da, -K/-N, -O, -GU, -ZU, -ZUE, -E

Esan dogu, perpausan *nor*, *nork* edo *nori* sintagmetarikorik agertu ezkerrean, aditzak eurakazko komunztadura zaindu beharra dauala.

Dana dala, komunztadura bakoitza jagotea gatxa ez bada ere, bikotxa edo hirukotxa korapilotsuago gertatzen da, batez ere 1. edo 2. pertsonakazkoa danean. Eta zailtasun hau beste honek ere bizitzen dau: euskerak inguruan dituan hizkuntzetako aditz konkordantzia askozaz sinpleagoa izateak, aurki.

Alde batetik inguru hizkuntzea eraginak, eta bestetik euskeraren beraren (eta hizkuntza guztien) erreztasunerako jokereak, zentzun bardineko egitura errezagoak eragin ditue gure hizkuntzan.

Adibidez:

- (5) *Bihar joango NAIATZU* etxera

esaldiaren zentzun paretzukoa da sarriago darabilgun beste hau:

- (6) *Bihar joango NAZ zure* etxera

Era berean:

- (7) *Zueneko umeak sarri JATORTAZ* etxera

baino ugariago darabilgu:

- (8) *Zueneko umeak sarri DATOZ nire* etxera

Beste ohar bat ere egin beharra dago izen sintagma honeek dirala eta. Nor-Nork-Nori horreek pertsonalak diranean (hau da, *ni, zu, gu, zuek*), edo testuinguruan ezaguna dan 3. persona bat (*ha, bera, eurak*), pertsona horreen barri aditzean emoten dan ezkerreko, alperreko gertatzen da izen sintagmok azaleko egituran agertzea. Horregaitik, estaldu egiten dira normalki:

(9) *Ekarri deusudaz liburuak*

Badakigu *nik zuri* ekartea dana, aditzak salatzen baideusku.  
*Liburuak* gauza barri edo ezezaguna danez, agirian dago.

(10) *Goizean ikusiko ninduzun*

Ezaguna da *zuk niri*: ez da beharrezko azaleko egituran.

(11) *Adarra joten jabiltzu*

Hemen ere *nor* ezagun batez dihardugu.

## Komuntaduraren galera edo desbideratzeak

Esana daukagu goratxoago, sarri hiru sintagma ezbardinegazko komuntadura zaindu beharra astun edo gogorregi egin daitekela.

Horregaitik, eta inguru hizkuntzen eraginagaitik ere bai zihurrik, desbideratze batzuk, edo errezbide batzuk gertatzen dira euskeraren barruan. Honetariko fenomenuek, euskeraren eremu osokoak izan ez ta ere, herrialde mugatu batzuetan bai gertatzen dira. Ikusi daiguzan banan-banan: lehenengo desbideratzeak, eta gero komuntadura galtzeak.

## 1 — DESBIDERATZEAK

### 1.1—«NOR-NORK» en ordez «ZER-NORI-NORK» aditz egitura

Bizkaiko (eta beste euskal lurraldeetako) belaunaldi gazteetan barra-barra entzun daikeguz honakoak (2):

(12) Lehen kalean ikusi *dotzut* (zaitut).

(13) Patxori autoan doala ikusi *dotzat* (dot).

Nik ezagutzen dodan Bizkaiko leku askotan, belaunaldi baten gorabeheran ezagun-ezagun da honetan egon dan aldaera. Eta, hain zuzen ere, euskaldunakaz egiten diran euskera-lantze saioetan gogorren ekin beharrekoko puntuetariko bat hauxe izaten da.

Hona ikasleakandik jaso ditudan adibide batzuk:

«Txakurra jo eben, alkateari ez *eutselako* maite»

---

(2) Puntu honek arako hizkirimiriak dakarst gogora: Autoestop egiten dagoanak, gelditu jakon autodunari itauntzen deusala, «Eroango deustazu Eibarrera?», eta besteak erantzun, «Bai, bota gancera!».

«Umeei jan egiten *deutse* sorginak» (Sorginek jan egiten ditue umeak)  
 «Pekaturtik ateraten *deutso* mutilari bere ahalmenagaz».  
 «Herriko jenteak sorgin horri bizirik erre *eutsoen*».

Argi ikusten da, sarritan euskeran forma osoak (hitz eta aditzen forma landuak) erabilten ikasi ondoren ere, honetarik hutsak ez dirala berehala baztertzen ikasleen buruetatik.

Azkuek ere salatzen dau nahaste hau (2')

## 1.2.—«ZER-NORI-NORK» en ordez «NOR-NORK»

Iparagirrerren «*Zibillak esan naute*» ha jatorku danoi bat-batean burura. Bizkaiko euskerari dagokionez, Lekeitioko kasua dogu argiena, Otxandion ere gertatzen dalarik. Lekeitiotik Gernikara bitartean ere «esan nau» eta holakoak sarritxo entzuten dira. Lekeition guztiz normalak dira honako adizkiak: «*Amak esan nau*», «*Kepak esan gaituz*», «*Umiak esan nabe*», «*Gurasoak esan gaituez*», baina beste alde batetik, herri horretan, *esan dotzu*, *esan dotzue*, *esan dotza*, erabilten dira, eta ez \**esan zaituz* eta halakoak.(2'')

Gipuzkoan ere zabal dabil herrialde batzuetan joera hau: Oiartzun, Ondarrabi, Tolosa...

Gaurko lapurteran ere barruraino sartua dago. Herri euskeraren adibide argia danez, *Auspoa* 158 liburuan, hain zuzen, Mari Treku-ren «Mattin, nere gizona» izenekotik esaldi batzuk *aterako ditut*:

«Ez *banau* animale hura iluna gabe bere tokian *sar arazten*, sarri zafraldi bat ona merezitua izanen du» (16 orr.).

«Hik, pilotan artzeko orde, eskolatik lekora behar *nauzkik* jurnal hoik etxe hoitarat *ereman*» (18 orr.).

«Halako ahatge bat *eman nintuen* memento hartan, bainan utzi ginuen elgar ondoko igande artio» (24 orr.).

«Belarrak sartzen badituz, hitz emaiten *zaituz* jinen naizela» (98 orr.).

2. Desbideratzeak dabten baino garrantzia eta eragin handiagokoak dira, *komunztadura galtzeak*. Komunztaduraren galera hau dala eta, puntu bi aitatu daitezke: pluraltasun hizkirik eza plural zentzuko aditzetan, eta nori-sintagmaz komunztadurarik ez betetzea.

---

(2') Azkue, *Morf.* 495-14<sup>a</sup>, 324 orr. Holan dino deklinabidez diharduala: «Otro de los casos anómalos de declinación consiste en valerse del dativo por el pasivo, traduciendo el *o* del acusativo personal castellano por el *a* de su dativo. He visto al Alcalde en casa de la suegra. *Alkateari aubearenean ekosi dotsat* (B-o) en vez de *Alkarea ikusi dot*. Donde más se oye esta anomalía (y afortunadamente se oye poco) es en B».

(2'') Azkuek, bere *Morf.* 495-15<sup>a</sup>, 324 orr: «Lo contrario se oye en varios dialectos: *egin nau* me ha hecho, por *egin daust o dit* me lo ha hecho, *emon nenduan* o *eman ninduan* me dió por *eman eustan* o *eman zidan* me lo dió.

## 2.1.— Pluralgilerik eza

Perpausako nor-sintagma *gu, zu, zuek, eurak* danean, aditzak pluralezko hizki bat hartu ohi dau euskal aditzean. Bizkaieraren kasuan -Z atzizkia orokorki, eta -IT- artizkia adizki batzuetan. Beste euskalkietan -Z- hizkia, azkenean barik artizki legez azaltzen da (diZkio, zaiZkit, dabilZkiru...), -TZA edo -ZKI atzizkiak (dalarZKI, dakarTZA), -IT- artizkia (niTuen, gaITu,...), eta -DE ere bai adizki batzuetan (gauDE, dauDE).

Baina Azkuek ondo ohartzen dauanez:

«En varias zonas territorialmente guipuzkoanas y alavesas del dialecto B rechazan por lo general toda característica de pluralidad objetiva. Dicen *dauko y emon dotsagu* aun tratándose de varias cosas, en vez de *daukaz y emon dotsaguz*» (3)

Azkuek, batez ere Leniz-Aramaio ibarretakotzat dakarren joera hau ez da atzo goizekoa, ondo aspaldikoa baino. Tradizino luze samarra dauka, beraz, pluraltasun atzizkirik ez erabilteak eskualde horretan. Hona horkoak dirudien txatal batzuek:

«Esquerriec asco emayten deusat/Andra Santa Maiñ(ari)»  
(Quema Mondragon, 50-51) (4)

Amilletaren katezismoa, Antzuolako abade batek egina dan XVII mendeko euskerazko testoak ere, adibide argiak dakar:

«Jauna ici *ceuscuna* ceure santuco señaleac icara santaan...» (1 orr.).

«Cer escatuco *gaiçacan* Jaungoicoari edo ichadengo dogun aganic» (2 orr.).

«eta amudiozco *obraac* dira Espiritu santuari aplicacen *jaaconaq*» (4 orr.).

«Poderezoac nori aplicacen *jaaco?*» (4 orr.).

«Cristoq vide vi ici *euscun* gueure escuan» (4 orr.).

«...demonioari *baguerraingon* condenuco guinala» (5 orr.).

Oinatiko Arrazola etxeko *Instruccinua*c eskuidatzian ere zenbat gura adibide daukaguz:

«Misterio santu *oneic* dira gueienbat guztiz comprendidu *daiquegunac*» (II, 30-31).

«sarritan jua biar gara bere presencia Divinora, presente eguiten *deutsagula* guere argaltasuna eta miseriac, amparau eta defendidu *gaian* guere Etsai madaricatu Diabrubaren lazuetic» (II, 56 b).

«...onen graciaren vitartez euqui *daguian* Eliza Santac bere aumenturaco gueiac eta materialac...» (II, 53 b).

«Bere Aita Jaungoicoac bada bialdu eben Mundura, Diabruac Guizonari eguin *eutsan* caltiac, eta eraguin *eutsan* obra madaricatubac deseguinquetara» (II, 50-b).

(3) Azkue, *Morfología Vasca*, ed. LGEV, Bilbao 1969, 775

(4) L. Michelena, *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro 8, Madrid 1964, 84 orr.

Bizkaian herri euskeran gehienbat ondo zaintzen bada nor-sintagma plurala daneko aditz atzizkia erabiltea, ikasle euskaldunengan ez da beti hola jazoten.

Aditzari dagokionez, eta batez ere irakaskuntza mailan, zorrotz neurtzeko arazoa da plural-hizkien erabilera. Izan ere era bitako akatsak egiten ditue ikasleek hemen.

Batetik, nor-sintagma pluralean erabili arren, aditzean plural hizkirik ez erabiltea. Honetariko hamaikatxo adibide aurkitu daitezke ikasle euskaldunen lanetan. Hona neuk baturiko batzuk:

«*Eukan* soinekoak kendu ebazan eta beste batzuk jantzi».

«Han igaro *gendun* gauak ez ziran alaiak izan».

«Asko gustatzen *jat* jazoera guztiak. Herri guztietan topaten *dogu* holako jazoerak».

«Arrapatu egin *eban* arrankari lodiak».

«Dinotso berak, joko *dauala* hiru herrietako kanpaiak».

Baina kontuz ibili behar da, aditz-forma pluralak dirala ta, erderaz plural zentzua euki arren, euskeraz singularra egokiago datorren kasuetan: hain zuzen ere, nor-sintagma -IK partitibo hizkiaz jartzen doguneko kasuaz dihardut. Hara hemen beste erabilera oker batzuk, neuk jasotakoak honeek ere:

«Nik ez *ditut* ez basajaunik ez laminarik ezagutzen».

«Hitz ezezagunik ez *ditut* aurkitu».

## 2.2.— Nori-sintagmaz komuntadurarik eza

Batez ere lapurtera-behenafarrerako erabilera da dinogun hau. Baina joera mugatua da, eta nire ustez, ez guztiz erregularra; arau zehatzetara zail makurtzekoa.

Esan behar da, lapurtera edo behenafarreran ere normalena aditza nori-sintagmaz komuntatzea dala. Eta jokera berezi eta mugatuena, ez komuntatzea.

Testu zaharretan ere badira honetariko kasuren batzuk, baino euskera modernoan agiri da biziago, batez ere ahozkoan. Idatzizkoan ere hainbat adibide bilatu geinke. *Herria* astekariaren horriak aztertzea aski litzateke kasu pilo bat aurkitzeko. Hona, han-hor-hemen jasoriko batzuk:

«Zenbati eman *duzu* jaterat? (Latitte, Gram. 98 orr).

«eta seme hari nahi *zuen* erakutsi berak zazkien gauza asko» (Mari Treku, 2).

«Jendeeri entzun izan *dut* milaka aldiz» (Id. 107).

«Goizean eman bide *da* ihesari, atea idekiz geroztik» (Murtuts, 61).

«Herritar guzieri mintzatu haizenean ixil-ixila, habil berehala Zugarramurdiko fraiden komentura» (Piarres Adame, 4).

«Orduan Mattin lotzen *duk* lasterka bideari, eta...» (Id. 50).

Baina esan dogu honetariko adibideak Iparraldeko euskarazko testuetan ere bakanak gertatzen dirala nori-gazko komunztadura jagoten dabenen ondoan: gehienetan araua ondo betetzen baita.

Testu zaharretan, Detxeparek berak ere badauka nori-gazko komunztadura betetzen ez daneko kasurik. Hona Tartas-engandik harturiko adibide bat:

«...eta paje hark... lehen hitzak erraiten *zutian erregeri* erregeren manuz...»  
(Tartas 14 orr.) (5)

Baina euskera osoan arauzkotzat daukagu aditzak nori-sintagmaz komuztatzea. Eta euskalki guztietan (batez ere, bizkaiera, gipuzkera eta Nafarroako euskalkietan) ondo zaindu dan araua da; eta testu edo ahozko euskeran ez zaintzea, euskera txar baten ezaugarritzat jotzen da gehienbat.

Baina puntu honetan ere baldartasuna apurka-apurka nagusitzen ete doan nago. Ni neu behintzat harritu samar nago, euskera lantzen diharduen gazte euskaldunen idazlanetan komunztadura mueta honegaz zein sarriro ahaztuten diran ikusita. Ugariena ez bada ere, ikasle euskaldunek sarri ere sarri egiten daben hutsa da hau. Ni aspertu ere egin naz ia, ikasleen lanetatik honelako esaldiak batzen. Gitxi batzuk ipiniko ditut erakusgarritzat:

«Deitzen *dau* euskaldunari euskeraren alde lan egiteko».

«Andra hari beroa sartu *zanean*, erre kara sartu zan».

«Ama batek bere semeari *dino* abadeari txapela kentzeko».

«Mutilek ez *eben* barre gehiagorik egingo alkateari».

«Muskerak aginka egiten *dau* mutilari».

«Gizonak esan *eban* umeari...».

«Etxe, solo eta abere guztientzat ondasuna eskatzen ei *da* santu horrer...».

Aditza eta aditzaren morfosintaxia irakasterakoan, irakasleek puntu hau ondo gogoan hartu behar leukiela uste dot. Izan ere, Bizkaiko euskertatik hartu ditudan kasuok ez dira lapurterakoen maila berekoak. Ez dagoz, ez literaturazko tradizioak, ez euskaldun zahar jatorren erabilerak babes-tuta. Euskera gitxi egiten dabenen eta erderaren eragin sarkorra barruraino iruntsita daukenen hutsa da.

Aditzaren komunztaduraz idazlantxo honetan ikutu ditudan puntuak, aurrerantzean akatsak zuzentzen laguntzeko izango al dira.

---

(5) Tartas, *Untsa hilzeco bidea*, ed. Jakin.